# IKASTETXE PUBLIKOEN ZUZENDARITZA

**IV. KAP 131.-139. art**

**LOMLOE**

Ley Orgánica **3/2020**, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación

www://

artikulu bakar baten bidez aldatu eta egunerartu egiten du...

**L.O.E.**

Ley Orgánica 2/2006 de Educación

ondorengo esparruan aldaketak dakartza...

**TÍTULO V: Participación**

- **CAP I** (*art. 118-119*) *Participación en el funcionamiento y gobierno de los centros*
- **CAP II** (*art. 120-125*) *Autonomía de los centros y PEC*
- **CAP III** (*art. 126-130*) *Órganos colegiados de gobierno y de coordinación en centros PUB*
- **CAP IV** (*art. 131-139*) *Dirección de los centros PUB*

dekretu honetan garatzen da...

EHAA - BOPV

**29/2023 Dekretua, zuzendaritza-eginkizunerako sarbidea, prestakuntza, ebaluazioa eta jarduera horren aintzatespena arautzen dituena**

~~22/2009 DEKRETUA~~
~~204/2012 DEKRETUA~~

indargabetzen ditu...

## I. KAPITULUA Alderdi orokorrak

**2. art.** Zuzendaritza-taldeak gauzatzen du ikastetxe publikoen zuzendaritza, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren, ikastetxeko hezkuntza proiektuaren eta zuzendaritza-proiektuaren (edo jarduketa-planaren) esparruan.

Zuzendaritza-taldeak lidergo pedagogikoa gauzatuko du, eta bere ikastetxean autoebaluazio- eta hobekuntza-prozesuak garatzea sustatuko du, ikasleen hezkuntza-arrakasta lortzeko eta eskola-emaitzak hobetzeko.

Zuzendaritza-taldeak hezkuntza-komunitateko kide guztien parte-hartzea eta lankidetza sustatuko ditu erabakiak hartzerakoan.

Zuzendaritza-taldeak hezkuntza proiektuaren helburuen lorpen-mailaren erantzule izango da zuzendaritza-proiektuan zehaztutakoaren arabera, eskola-komunitatearen zein hezkuntza-arloan eskumena duen sailaren aurrean.

**3. art.** Zuzendariaren eskumenak:

- Ikastetxearen ordezkari izatea
- Zuzendaritza pedagogikoa
- Indarrean dauden xedapenak betetzen direla bermatzea
- langile guztien buru izatea
- elkarbizitza hobetzea
- familiekiko, erakundeekiko eta organismoekiko lankidetza bultzatzea

eskumen gehiago ⊞

## II. KAPITULUA Zuzendaritza-taldeen prestakuntza

**4. art.** Hezkuntza Sailak eskeiniko ditu:

- **prestakuntza jarduerak:** Zuzendaritza-funtzioa, hezkuntza-kudeaketa, hezkuntza lidergoa…
- **zuzendaritza-funtzioan sartzeko** prestakuntza-programa espezifikoak…
- **konpetentziak eguneratzeko** prestakuntza-prog. espezifikoak zuzendaritza-taldeko kideentzat.

www://

Egitura modularreko programak, zati teoriko eta praktikoa dutenak, aurrez aurreko edo urrutiko moduluak dituztenak, gaitasun egiaztatua duten langileek eman, gainbegiratu eta ebaluatuak.

Programa amaitu eta ebaluazioa gainditu ondoren: egiaztagiria

**5. art.** Zuzendaritzan jarduteko hautatutako zuzendariek (edo ezohiko izaeran izendatutakoek), aldez aurretik gainditu beharko dute zuzendaritza eginkizunean sartzeko berariazko prestakuntza programa.

Ikus salbuespenak ondorengo xedapenean: RD 894/2014 ⊞

Sailak pertsona bakarreko beste kargu batzuetarako prestakuntza programa bereziak eskainiko ditu, zuzendaria ez direnak.

**6. art.** Hezkuntza Sailak etengabeko prestakuntza-programak sustatuko ditu, zuzendaritzaren, hezkuntza-kudeaketaren eta lidergoaren esparruetan ezagutza teknikoak eta profesionalak eguneratzeko.

Zuzendaritza-funtzioa betetzeko prestakuntza-programa espezifikoa gainditu duten zuzendari hautatuek (**5. art.**) zortzi urteko epea igaro ondoren, eguneratze-programa espezifikoa gainditu beharko dute.

Sailak berariazko prestakuntza eskainiko die zuzendaritza taldeko gainerako kideei, eta master edo bestelako eguneratze programetan parte hartzea erraztuko du.

## III. KAPITULUA Zuzendaritza-taldeak hautaztea

**7. art.** Zuzendaria merezimendu lehiaketa bidez (urteko deialdia) aukeratuko da karrerako funtzionario diren irakasleen artean. Bi fase izanen ditu:

- zuzendaritza-proiektuaren balorazioa eta haren defentsa (gehienez 70 puntu / gutxienez 35)
- merezimendu akademikoak, prestakuntzakoak eta profesionalak (10+10+10 = 30 puntu)

**8. art.** Izangai bakoitzak hiru ikastetxe izanen ditu gehienez, eta **baldintza** hauek bete beharko ditu:

a) gutxienez bost urteko * antzinatasuna karrerako funtzionario gisa

b) irakaskuntzako funtzioak, karrerako funtzionario gisa, bost urtez*, ikastetxeko irakaskuntzetakoren batean

c) hizkuntza-gaitasuna (euskaraz)

d) zuzendaritza-proiektua urkeztea

* Kasu batzuetan (HHko zentroak, osatu gabeko LHkoak, 8 unitate baino gutxiagoko DBHko zentroak...), bost urteren ordez, bakarra.

**9. art.** Hautaketa-batzordeak **sei** kide izango ditu: klaustroko bi irakasle; OOGko bi kide, irakasle ez direnak; ebaluazio positiboa duen zuzendari bat eta ikuskari bat (batzordearen buru). ⊞

**10. art.** Zuzendaritza Proiektuan IHP garatzeko eta aplikatzeko ildo nagusiak zehaztuko dira. Helburuak, jarduera-ildoak eta ebaluazioa zehaztuko ditu.

Baloratu beharreko alderdiak: ikastetxearen ezagutza-antolaketa, curriculum-neurriak, gizarte-trebetasunak, lidergoa…

Proiektuarekin batera: zuzendaritza taldearen proposamena.

Izendapen berezia izanez gero: IHPrekin bat datorren jarduketa plana aurkeztu beharko du.

irizpideak 11. artikuluan ⊞

## IV. KAPITULUA Izendapena, iraupena eta kargu-uztea

**12. art.** Lurralde-ordezkariak hautatutako persona izendatuko du 4 urterako (uztailaren 1etik aurrera). Prestakuntza-programa espezifikoa gaindituta izan behar du (5. art.)

Zentrokoa ez bada, zerbitzu-eginkizunetan.

**13. art.** Ordezkariari beste aldi berri (eta bakar) baterako berritzea eskatzeko aukera:

- Zuzendaritza Proiektua berrikusi-eguneratu behar,
- proiektuaren ebaluazio positiboarekin,
- OOGri entzun ondoren.

Berritzea agortuta, hautaketa-prozesu berri batean parte hartzeko aukera.

**14. art.** Karrerako funtzionario bat lau urterako ezohiko izendapenerako aukera (bitarteko langileen kasuan: urtebeterako)

- aurretiko ikuskapen-txostena
- OOGa entzunda
- berariazko prestakuntza-programa gainditu beharko du, eta
- IHPrekin lerrokatutako jarduketa-plana aurkeztea.

**15. art.** Zuzendariak kasu hauetan utziko du kargua:

- aldiaren amaiera
- zentroaren eraldaketa
- uko egite arrazoitua
- gerora sortutako ezintasuna
- errebokazio arrazoitua
- ordezkaritzaren ekimenez edo OOG-k proposatuta

**16. art.** Ikastetxeko pertsona bakarreko gainerako gobernu-organoak ⊞ proposatzea, izendatzea, kargu-uztea eta kargutik kentzeari buruz…

## V. KAPITULUA Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa

**17. art.** Ikuskaritzari dagokio zuzendaritza-lana ebaluatzea.

Zuzendaritza-funtzioaren eta -konpetentzien garapena aztertzera zuzenduta egongo da, bai eta horien jarduna hobetzen sustatzera eta laguntzera ere..

Ikuspegi bikoitza: prestakuntza- eta egiaztatze-ikuspegia.

Erreferenteak: Zuzendaritza Proiektuaren garapena eta araudiak ematen dituen eskumenak eta eginkizunak garapena.

**18. art.** Zuzendaritza-funtzioaren prestakuntza-ebaluazioa etengabea izango da, eta agintaldi osoan egingo da.

Zuzendaritza-taldearen jarduna hobetzeko, gainbegiratzea, aholkularitza eta ebaluazioa izango ditu helburu.

Partaidetza-prozeduren bidez egingo da, hezkuntza-komunitateko sektore guztieki irekita.

**19. art.** Zuzendaritza-funtzioaren jardunaren amaierako ebaluazioak bi helburu ditu:

- agintaldia berritzeko aukera ematea
- aintzatespen pertsonala eta profesionala (**20. art.**)

## VI. KAPITULUA Zuzendaritza-funtzioaren jarduna aitortzea

**20. art.** Zuzendaritza-taldeko kide guztien ebaluazio positiboa meritu bat da, Administrazioko lanpostuak betetzean eta beste irakasle kidego baterako sarbidean kontuan hartzekoa.

Berariazko osagarriaren ordainsaria. Zuzendaritzaren kasuan, haren zati bat finkatu ahal izango da (**art. 22**).

Egutegia eta nahitaez egon beharreko ordutegia malgutzeko aukera.

Zuzendari gisa bigarren agintaldia jarraian egin ondoren:

- hobekuntza profesionalerako eta/edo zuzendaritza-talde hasiberrientzat tutoretza-lanetarako ordainsaridun irakaskuntza-kargarik gabeko urtebeteko baimena
- behin betikoa bada, deitutako lehenengo bi lekualdatze-lehiaketetan ikastetxea aukeratzeko lehentasuna

Ikuskaritzako kidegoan sartzeko deialdietan, plazen 1/10 erreserbatuko du Sailak merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko, gutxienez hiru agintaldi osotan zuzendari-kargua bete duten irakasleen artean…

**21. art.** Bere zereginaren garrantziarekin bat datozen tratua, begirunea, errespetua.

Berrikuntza-proiektuak garatzeko autonomia…

Administrazioko lanetarako langileak jartzea.

Irakasle-kreditu espezifiko bat zuzendaritza-funtzioa betetzeko, beren zuzendaritza-proiektuak garatzeko, mentorasgo-lanetarako trantsizioak egiteko…